

Berberotarra

Badatozela San Faustoak! Badatoz Durangoko jaiak!

Aurten ere TxosnaBatzordean parte hartu dugu Berbarokook. Azken urteetan bezala herriko beste 19 elkartetako kideekin batera Durangoko herritarrentzat jai egitarau txukun bat prestatzen aritu gara, baina aurten ere, txosnarik ez jartzea erabaki dugu.

Paella txapelketa eta erreka jaietsiera

Horrek ez du esan nahi jaietan presente izango ez garenik. Iaz bezala txosnaguneko paella lehiaketan parte hartzeko asmoa dugu gazte, hezitzaile zein gerturatzen diren guztiekin. Bazatuz? Berbaroko mahaia beteko dugu elkarrekin?



Gero neoprenoa jantzi eta Ibaizabal errekan behera joateko intentsioa ere badugu. Iaz GugazT taldeko gazte eta hezitzaileek primeran pasatu zuten eta errepikatzeko asmoa dute.



**Jaietan ere,
euskaraz
bizi
nahi dut**

Urriak 8, 13 eta 14an
19:00etan
Ezkurdin, Andra Marin
eta Plateruenan



AEK - Anboto - Berbaro - Durangoko Hizkuntza Eskola - Euskal Herrian Euskaraz
Ibaizabal Ikastola - Kurutziaga Ikastola - Plateruena - Udal Euskaltegia

Euskaraz bizi nahi dut

Baina aurten ekintza berezi bat antolatzen ere badihardugu. Txosna Batzordeaz gain, euskalgintzan aritzen garenok ere elkartu eta jaietan gure alea jarri nahi dugu.

AEK, Ibaizabal ikastola, EHE, Udal Euskaltegia, Hizkuntza eskola, Kurutziaga ikastola eta Berbarokook euskaraz bizi nahi dugu eta San Faustoetan ere hori kaleratu nahi dugu.

Horretarako herriko jaietan jendeak parte hartzeko ekintza polita prestatu dugu:

Urriaren 8, 13 eta 14an zatoz Andra mari, Ezkurdi edo Landako gunera. Hiru tokietan arratsaldeko 19.00etan izango da hitzordua, eta momentu berean ekintza bera burutuko da. Zatoz zu ere! Egun bakoitzean hitz bat marraztuko dugu, 8an "EUSKARAZ", 13an "BIZI" eta 14an "NAHI DUT".

UDAN OLGETAN



Udan Olgetan udalekuetako merendola izan genuen aurrekoan Plateruenan. Begiraleak, umeak eta gurasoak berriro elkartzeko aukera izan genuen. Momentu hori aprobetxatuz, ume eta gurasoen iritzia jaso genituen eta bertaratutako guraso batek adierazitakoa jaso dugu hurrengo lerroetan: Maite Santosek alaba biak izan ditu udalekuetan 5 astez, ekainaren 27tik uztailearen 29ra. Berbarok hainbat udaleku antolatzen zituela jakinik horrelako eskaintza baten bila aritu ziren, eta Udan Olgetan aukerarik onena iruditu zitzaion.

Zergatik Berbaro eta Udan Olgetan udalekuak?

Euskara. Nire alabek euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea nahi dudalako, egunerokotasunean euskara erabiltzea eta indartzea. Gainera, Berbaroko udalekuetan lantzen duten euskal kultura ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu; ogia eta taloa egitea, dantzak, abestiak, Axpeko baserri batera irteeratxoan ortua eta animaliak gertutik ezagutzea, mitologia, Olentzeroren etxera bisita...

Zelan ikusi dituzu zure alabak udalekuetan egon diren bitartean?

Egunero udalekuetara joateko ilusioa izan dute eta etxera bueltatzerakoan beti izan dute istorio dibertigarriren bat kontatzeko. Begiraleekin oso pozik egon dira.

Eta gurasoen ikuspuntutik, zelan ikusi duzue antolaketa?

Primeran. Udalekuei buruzko informazio guztia izan dugu momentu oro; gurasoen batzarrean aipatutakoa, emailaz jasotakoa eta astero emandako orri informatiboetan jarritako argibide guztiak oso ondo egon dira. Gainera, edozein zalantza izanda, oso hurbilekoak sentiitu ditugu bai begiraleak eta baita arduradunak ere; Ibaizabalen eta bulegoan atentzio oso ona eta, emailaz ere, erantzuna jarraian jasotzen genuen. Instalazioak oso egokiak izan dira egindako ekintza guztiak burutzeko, bai kanpoan eta baita barruan ere.

Kexarik, proposamenik, hobetzeko ideiarik?

Galdera honetarako erantzun baten bila aritu naiz baina egia esan, ez zait ezer bururatu. Nire ustez, oso ondo egon da dena eta gaurko merendolarekin borobilduta gelditu da. Baina, zerbait aipatzekotan, jantoki zerbitzua izango litzateke nire proposamena.

AIZKOA

11 eguneko esperientzia sukaldetik. Ane eta Libe, Solagaistuatar ahizpak izan dira aurtengo udako sukaldako erreginak. Jo ta su ibili dira Aizkoako udalekuetan 60 gazterentzako gosari, bazkari, askari eta afariak prestatzen.

Nola animatu zineten 11 egunetan hainbeste gazteri jaten ematera?

Ane: Askok gustatzen zaigu sukaldatzea, gainera nire bigarren urtea da eta aurrekoan primeran pasatu nuen. Desberdina da, sukaldan orduak emateaz gain, ekintzetan ere parte hartzen duzu eta umeekin harremana daukazu. Super guai dau!

Nola kalkulatu izan dituzue janari kopuruak?

Libe: Horretarako laguntzaile aparta izan dogu, Matienako "Kali" sukaldaria. Berak esan zizkigun gutxi gora beherako kantitateak "eztakit zenbat pertsona badie, ... eztaikit zenbat lenteja!". Buruz dakit! 5 kilo dilista, 60 umerentzat! Kar kar kar.

Eta zein da umeek gustokoen duten janaria? eta txarrena?

A.: Nik uste dut patata purea saltxitxekin zela exito gehien zeukana. Purea kantitate super handietan egiten da, umeak errepikatzea daukate eta super pozik egoten dira. Eta txarrena, agian arraina; sopa ere ez zuten askorik jaten.

Zer nolako giroa sortzen da sukaldan?

L.: Sukaldan oso giro polita egon izan da beti. Batzuetan begiraleak tarteko orduetan agertzen ziren zerbait pikatzera; beste batzuetan, umeren bat tripako minekin mantzanila eske; askotan, txantxetan zetozenak, laguntzeko prest zeuden eskuak, lehen aldiz patatak zuritzera zetozenak, dantza eta kanturriadak ... Kriston barreak bota ditugu.

Eta ahizpen artean nolako harremana izan duzue su artean?

A.: Ni harrituta nago! Etxean baino askoz hobegoa! Gainera tentsio une asko daude, janaria heltzen ez denean, erosketak egitean... Haserrealdi indartsu bat izan genuen! Kar kar kar! Lizarrara lehenengo aldiz erosketak egitera jaitsi eta bueltan galduta ibili ginen, GPS-a gora eta behera, janaria prestatzeko helduko ez ginela! Baina bestela oso ona, gainera garrantzitsua da gure arteko harremana ona izatea.

Datorren urtean ere amantala jantziko duzue?

L. eta A.: Duda barik bai! Ahal badugu eta aukera baldin badugu... Seguru baietz!



BERBALAGUN

Berba, lagun, euskara, praktikatu, norekin, aukera, 8 urte, 100dik gora lagun, ari, ikasi, bizi, bidelari, bidelagun, ausartu, deitu, 639400786, emakumea, emakumea, gizona?

Zabaldu, ekin, norekin, zurekin, euskaraz, bizi, 12 talde, AEK, Udal Euskaltegia, Hizkuntza Eskola, Berbaro, kultura, ohitura, ekitaldiak...

Transmititu, euskara, berbak, hitzak, eleak, mintza, praktika...

Seguruenik berri asko izan ditugu egitasmo ikaragarri honi buruz; entzun eta irakurri egin dugu; probatu ez, ordea. Bidea egiten dabilizane (bidelari) laguntzen diegunoi bidelagun ipini digute izena. Berbarok badu hor erantzukizuna, berbarok-kideok badugu eginkizuna.

Aurreko ikasturtean 10 bidelagun besterik ez dira ibili taldeetan sartuta, zenbaitetan akuilu lanak egiten, besteetan eragile eta, sarritan, irakasle ere bai. 2011/2012 ikasturterako erronka nagusi bi ditu Berbalagunek: bidelagunen kopurua handitzea eta proiektua herriko taldeetara zabaltzea.

- Bidelagunen kopurua handitzea. Kanpotik ikusita askok pentsa dezakete Berbalaguna euskara ikasten dutenen eta irakasleen kontua dela. Ez da horrela. Izan ere, egitasmoaren helburuetako bat euskaldunen sarea handitzea da, euskaldunok elkar ezagutzea.

- Proiektua herriko taldeei zabaltzea. Kudeatzaileen asmoa da herriko zenbait taldeetara jotzea interesgarria delako haien parte hartzea eta inplikazioa. Guraso elkarteak, euskaldun asko batzen dituzten elkarteak izan daitezke jomugan.

Jakizue bada, aipaturiko hauek biak lehentasunezko zereginak izango direla aurtengo Berbalagun egitasmoa bideratzen duen jarraipen batzordearentzat: Abarrak AEK, Udal Euskaltegia, Hizkuntza Eskola eta Berbaro.

Deitu, 639400786. Egin zaitez BERBALAGUN



GUREAN EUSKARAZ

Urteak aurrera doaz eta Gurean Euskaraz proiektuak ere aurrera darrai. Bostgarrenegoz hasiko da Durangoko ume atzeritarrentzat, hirugarrenegoz lurretakoentzat eta bigarren urtez Berrizen.

Proiektuak indar handia hartu du eta asko dira bertatik pasatu diren ume atzeritarrek eta hezitzaileak. Proiektu honekin hasi ginenetik arituta eta, gainera, iazko urtean proiektuaren arduraduna izan ondoren, Maite Unzaluk bere alea utzi eta orain Garazi Etxebarria ekingo dio bideari.

Biak ere urte askotan Berbaron hainbat ekintzatan aritutako hezitzaileak dira. Udalekuetan, Haur Literatura Aretoan, Gurean euskaraz... eskerrik asko bie orain artekoagatik eta emango duzenagaitik.

**Garazi Etxebarria**

Iepa Berbarotarrak! Orain lau urte hasi nintzen Gurean proiektuan parte hartzen eta gogoz hartutako lana izan da.

Umeetako batzuk hasieratik dira proiektu honen parte eta hasten ikusi ditugula esan genezake. Orain arte euskara errefortzuak emateaz gain, batetik, txikienekin jolastu, eta bestetik, nagusiagoen eguneroko kezka eta arazoak entzun eta laguntzeko prest izan gara. Aurtengoan ere, berdin jarraituko dugu lanean begiraleen eta nire artean, besteak beste, aisialdiko hainbat ekintza antolatu eta ikastetxeko etxerako lanak egiten lagunduko diegu etorkinei.

Urrian ikasturte berriari ekingo diogu eta ziur nago, aurtengoan ere, Pinondo inguru zein Durangoko kaleetan ikusiko gaituzuela.

Horrenbestez, gero arte!

UDAL BARRUKO EUSKARA PLANA

Durangoko Udalak Euskara Plana (2008ko abenduaren 18an) eta Euskararen Udal Araudia (2010eko uztailaren 20an) onartu zituen helburu nagusi honekin: herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta euskara egoera normalizaturantz abiatzeko beharrezko urratsak ematea. Eta honek eragin zuzena du udal langileen eginkizunetan:

1. Udalean eta bere erakunde autonomoetan sortzen diren idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dira.
2. Ahozko jardunari dagokionez, udaleko langileek bermatu beharra daukate herritarrek administrazioarekin euskaraz egiteko duten eskubidea.

Berbaro

Udalak Berbaroren zerbitzua kontratatu zuen akordio hauek bideratzeko, planak martxan jartzeko eta urteko kudeaketa planak diseinatzeko; hau da, Udaleko langileentzako plana dinamizatzeko. Horretan ari da Berbaroko langilea den Iker Añuriagerra, eta hauek dira beraren bitartez eman diren urratsak:

Euskara maila berreskuratzeko ikastaroa: 2011-2012 ikasturtea.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta baina, hala ere, maila galdua dutenek maila berreskuratzeko eta, ondorioz, lana euskaraz egiten hasteko epealdia jarri da, adostasun osoz, alderdi politiko, atalburu, Langileen Batzorde eta Euskara Zerbitzuaren artean. Berau, 2. 3. eta 4. perfilak egiaztatu duten langileei zuzenduta dago. Epealdi horretan (2012ko abendura arte) langileari behar duen guztia eskainiko zaio euskaraz lan egiten laguntzeko eta, bide batez, bere euskara maila berreskuratzeko: euskara ikastaroak, itzulpenak, trebatze saioak, zuzenketak, softwareak euskaraz... Ondoren, langile bakoitzari 2013-2017 Euskara Planean plan pertsonalizatua egingo zaio. Plan horretan, atalburuekin adostuta, langile bakoitzak euskaraz zer ekoitzi behar duen jasoko da, urteik urtera progresiboki handitzen joango dena. Helburua 2017rako Udalak sortzen duen gehiengoa euskaraz sortzea da, eta Euskara Zerbitzua arduratuko da dokumentuak elebidun egoten.

2013-2017 Plana egiteko pertsona bakoitzaren euskara maila zehatza zein den jakin behar dugu. Horretarako, ikastaro trinkoa jarri dugu abian; ikasturte honetan (2011/2012an) emango da urritik ekainera bitartean, astean 2 orduz. Udal Euskaltegiko irakasle bat eta Iker izango dira saioak zuzenduko dituztenak. Ikastaroarekin lortu nahi dena langileek euskara maila berreskuratzen hastea da. Ikastaroa 15-20 lagunekoko 3 taldek jasoko dute, guztira 50 bat pertsonak. Taldeak lanpostuen arabera sortu dira; izan ere, lanean erabiltzen dituzten dokumentuak landuko dituzte:


A taldea: Atal-buru eta goi mailako teknikariak.

B taldea: Teknikariak eta administrariak

C taldea: Administrariak eta administrari laguntzaileak.

GURE BULEGOA

II. KAPITULUA



Ez erratu, ez da desordenatuak garela, lekurik ez dugula baizik. Ba beste barik! Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du eta.

Laguntzaileak:

